

GRADU AMAIERAKO LANA

**Euskal itzulpenen azterketa kuantitatiboa eta inbentarioa
(2008-2018)**

IKASLEA: Iñigo Satrustegi Andrés

GRADUA: Itzulpengintza eta Interpretazioa

TUTOREA: Isabel Etxeberria Ramirez

SAILA: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

IKASTURTEA: 2018-2019

Laburpena

Gradu Amaierako Lan honetan, izenburuak berak iradokitzen duen moduan, azken hamaika urteetan euskarara itzuli den helduentzako literaturaren azterketa kuantitatiboa eta inbentarioa egin dugu. Manu Lopez Gasenik 2009an egindako *Euskal itzulpenen azterketa eta inbentarioa (1976-2008)* lana abiapuntu izan dugun heinean, honako lan hau azken horren jarraipen gisa aurkeztu nahi dugu. Hala ere, guk azterketa kualitatiboa alboratzea erabaki dugu, eta, era berean, Lopez Gasenik ikertu ez zituen parametro berri batzuk gehitu nahi izan ditugu.

Lehenik, Lopez Gaseniren lana aurkeztu dugu, azken urteetako argialetxeen, Interneteko baliabideen zein aldizkarien panoramari begirada azkar bat ematearekin batera. Bertan, sortu diren ekoiztetxeak eta ekimenak laburtu ditugu.

Itzulpen ikasketetara jo dugu azterketarekin hasi baino lehen. Beharrezkoa iruditu zaigu itzulpengintzak kultur adierazpen gisa duen garrantzia azpimarratzea, eta horretarako, Itamar Even-Zohar ikerlariak proposatutako Polisistemen Teorian oinarritu gara.

Jarraian, azterketa honen aurretik egindako ikerlanak laburtu ditugu. Batetik, 2008ra bitartekoak (Lopez Gaseniren azterketara bitartekoak), eta bestetik, azterketa horren ostean gaurdainokoak. Joan Mari Torrealdairen *30 urte liburugintzan* liburuaren datuak laburbildu ditugu aurrena, baita Lopez Gaseniren azterketaren nondik norakoak eta Literatura Unibertsalak ordura arte izandako harrera. Euskal Itzulpengintzaren komunitatean sortu diren kezkek islatzen dituzten hainbat ikerketa eta lanek emandakoak ekarri ditugu, hala nola liburugintzak 2008tik izandako bilakaera, generoaren auzia, poesia eta hizkuntza gutxituen gaiak jorratzen dituztenak.

Azterketa burutzeko jarraitu dugun prozedura dator horien ostean. Nor da Nor datu basea izan dugu oinarri eta itzulpen lanak bitan banatu ditugu: monografiak eta bestelakoak. Azterketa antzekoa burutu dugu bi kasuetan, Lopez Gasenik aztertutako parametroetan oinarrituta; literatur generoa, jatorrizko hizkuntzak, egileak, itzultzaileak eta argialetxeak dira aztergaietako batzuk. Monografiak 2009ko azterketako emaitzekin alderatu ahal izan ditugu, eta bestelakoak, berriz, lehen aldiz guk aztertu ditugunez, liburuetan lortutako emaitzekin konparatu ditugu.

Azterketak emandako datuak ikuspegi orokorrago batekin analizatu, eta gure ondorioak proposatu ditugu azkenik. Bukaeran, Gradu Amaierako Lan hau egiteko erabili ditugun iturri bibliografikoak zerrendatu ditugu.

AURKIBIDEA:

Laburpena.....	1
AURKIBIDEA:.....	3
TAULEN ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA	4
Taulak:	4
Grafikoak:	4
1. SARRERA	5
2. MARKO TEORIKOA	7
3. AZTERLANAREN AURREKARIAK.....	8
Aurrekariak 2009ra arte	8
Aurrekariak 2009tik	10
4. METODOLOGIA	13
5. DATUEN ANALISIA	17
5.1 Monografiak.....	17
5.2 Bestelakoak	30
6. ONDORIOAK	38
7. BIBLIOGRAFIA	40
I. ERANSKINA: Monografietako taulak osorik.....	41
II. ERANSKINA: «Bestelakoak» ataleko taulak osorik	47
III. ERANSKINA: Euskal itzulpenen inbentarioa 2008-2018.....	50

TAULEN ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Taulak:

1. Taula:Euskal liburugintza 2008-2016.....	11
2. Taula:Euskarria.....	17
3. Taula:Genero literarioa.....	17
4. Taula:Jatorrizkoen hizkuntzak.....	18
5. Taula:Jatorrizkoen herrialdeak.....	20
6. Taula:Jatorrizkoen argitalpen data.....	22
7. Taula:Jatorrizkoen argitalpen data, Manu Lopez Gaseniren azterketan.....	22
8. Taula:Jatorrizkoen egileak.....	23
9. Taula:Jatorrizkoen egileak, Manu Lopez Gaseniren azterketan.....	23
10. Taula:Itzultzaileak.....	25
11. Taula:Itzultzaileak, Manu Lopez Gaseniren azterketan.....	25
12. Taula:Itzultzaileen generoa.....	26
13. Taula:Itzulpen kopurua generoaren arabera.....	26
14. Taula:Elkarlanean egindako itzulpenen konbinazioak.....	28
15. Taula:Argitaletxeak.....	28
16. Taula:Argitaletxeak, Manu Lopez Gaseniren azterketan.....	28
17. Taula:Argitaletxeen elkarlanean egindako itzulpenak.....	30
18. Taula:Genero literarioa, bestelakoak.....	31
19. Taula:Jatorrizkoen hizkuntzak bestelakoak.....	31
20. Taula:Jatorrizkoen itzulpen data, bestelakoak.....	33
21. Taula:Jatorrizkoen taulak, bestelakoak.....	34
22. Taula:Itzulpenen egileak, bestelakoak.....	36
23. Taula:Itzultzaileen generoa, bestelakoak.....	36
24. Taula:Itzultzaileen lan zama generoaren arabera, bestelakoak.....	36
25. Taula:Elkarlanean egindako itzulpenak, bestelakoak.....	37
26. Taula:Argitaratzaileak eta euskarria.....	37
27. Taula: Jatorrizkoen hizkuntzak, osorik.....	41
28. Taula: Jatorrizkoen herrialdeak, osorik.....	42
29. Taula: Itzultzaileak, osorik.....	45
30. Taula:Argitaletxeak, osorik.....	46
31. Taula: Bestelakoetako jatorrizko hizkuntzak, osorik.....	47
32. Taula: Bestelakoetako itzultzaileak, osorik.....	48
33. Taula:Bestelakoetako argitaratzaileak, osorik.....	49

Grafikoak

1. Grafikoa:Argitalpenak urteka.....	24
2. Grafikoa:Itzultzaileak elkarlanean.....	27
3. Grafikoa:Itzulpenak urteka, bestelakoak.....	35

1. SARRERA

Aurten beteko dira 10 urte *Senex* aldizkariaren 37. zenbakian “Euskal itzulpenen inbentarioa eta azterketa (1976-2008)” lana publikatu zenetik. Manu Lopez Gasenik, Euskal Itzultzaile eta Zuzentzaileen Elkarteak (EIZIE) eskatuta, izenak berak iradokitzen duen moduan, ordura arte euskaratutako liburuen sailkapena eta azterketa egin zituen. Lan horrek EIZIEk etorkizunean Literatura Unibertsala (LU) bilduman txertatu beharko lituzkeen tituluen ezaugarriak proposatzeko balio izan zuen eta horretarako, beharrezkoa zen euskarara ekarritako testuen azterketa kuantitatibo zein kualitatiboa egitea¹.

Lanak 2008. urtera bitarteko itzulpenak izan zituen aztergai, eta Lopez Gasenik aurrera begira elikatzen joateko proposamena egin zuen. Inbentarioaren atalari jarraipena emateko ardura EIZIEk hartu zuen, 2014an aurkeztu baina, 2010etik landutako Nor da Nor (NdN) datu basearekin. Egun, euskaratik eta euskarara egindako itzulpenen informazioa ez ezik itzultzaileen inguruko informazioa ere biltzen du atari digital honek. Bestalde, ikusita azken azterketa egin eta argitaratu zenetik hamar urte pasa direla, eta zifra biribila denez, interesgarria iruditu zitzaigun azterketaren jarraipena Gradu Amaierako Lan honetan biltzea.

Aldaketa askorako ematen du 10 urtek, eta horren adierazle da azken hamarkadako euskal argitaletxeen panorama: argitaletxe berriak sortu dira Euskal Herrian, eta batzuek gehiago edo beste batzuek gutxiago, itzulpen ekoizpenari leku bat egin diote denek.

Meetok argitaletxea 2005ean, Donostian, sortu bazen ere, ekoizpenaren gehiengoa 2008tik aurrerakoa du; itzulpenak argitaratzen ditu bai gazteleraz, eta baita euskaraz ere. *Denonartean* argitaletxea Berriozarren sortu zen 2008an bertan, eta orotariko generoak lantzen ditu (hur eta gazte literatura, saiakera, narratiba, poesia, komikia,...). Euskal literaturak zituen hutsuneak betetzeko asmoz sortu zen *Edo!* 2012an, Oier Guillan eta Idoia Beratarbideren gidaritzapean; poesia, antzerkia eta artearekin zerikusia zuten gaiak jorratzen zituzten, baina 2017an utzi behar izan zuten. Urte berean sortu zuen Xabier Queiruga galiziarrek *Pasazaite* Donostian, euskarazko literatura itzulpenak argitaratzeko propio sortutako argitaletxea. *Katakrak* Iruñeko liburu denda lehenagotik sortu bazen ere,

¹ Manu Lopez Gasenik 2008. urtera bitarteko lanak aztertu zituen, 2008koak barne. Ikerketa 2009an egin zuela kontuan hartuta, uste dugu 2008ko itzulpenen informazioa «berriegia» izan zitekeela, eta horrenbestez, guztiz osatu gabea. Bere datuak eta gureak kontrastatu ostean, ikusi dugu aldea nabaria dela (Lopez Gasenik 35 bildu zituen, NdNen 61 azaltzen dira), eta beraz, guk ere gure azterketaren barruan sartu ditugu 2008ko lanak.

2016an egin zuen argitalpen propioak sortzeko jauzia, Hedoi Etxarte idazle eta itzultzailearen eskutik. Euskaraz zein gazteleraz, sorkuntza eta itzulpen lanak argitaratzen ditu, narrazio eta saiakera generokoak batez ere.

Hala, beraz, hamar urtean 4 argitaletxe sortu dira, nahiz eta horietatik bat desagertu egin den. Gainera, sortu berri diren guztiek itzulpenekin lan egiten dutenez, esan genezake balantzea positiboa dela, itzulpengintzari dagokionean behintzat.

Aipatzekoak dira ere lehenagoko zenbait argitaletxek burutu dituzten zenbait ekimen.

Susa argitaletxeak 2014an, poesia itzulian zegoen hutsunea betetzeko asmoz, *Munduko Poesia Kaiarak* bilduma abiatu zuen, non hizkuntza askotako autoreen poema antologiak osatu dituzten.

Agerikoa da, bestalde, azken urteetan feminismoak gurean izan duen oihartzuna. Pentsalari feministak euskaratzeko ahalegina egiten ari dira 2016tik Elkar eta Jakin argitaletxeak. *Eskafandra* bilduman dagoeneko 5 dira euskarara ekarri dituzten saiakera lanak.

Bestalde, EIZIEk kudeatzen duen LU bildumaren baitan, 42 itzulpen lan euskaratu dituzte 2008tik. Hamar urte hauetan bi aro bereiz daitezke: lehena 2002an hasi eta 2010ean bukatu zena, eta bigarrena 2012az geroztik martxan dagoena. Horrekin batera, EIZIEk ere LU bildumaren lehen belaunaldian itzuli zituzten liburu «ezagunenekin» bilduma berezi bat sortu zuen 2010ean, berrargitalpen berezi modura: Urrezko Biblioteka.

Hamar urtetan aldaketarik egon bada, teknologiak gure bizitzetan izan duen espazio gero eta handiagoa kontuan hartzeko faktore bat da horretan. Itzulpengintzak jakin du eremu horretara heltzen, eta adibide ditugu sareko hainbat baliabide:

Garazi Arrulak eta Danele Sarriugartek, EIZIEren laguntzarekin, itzulpen lanak zabaltzeko eta itzulpengintzaren inguruko gogoeta eta elkarrizketak elkarbanatzeko *Elearazi* bloga kudeatu zuten 2012. eta 2015. urteen artean. Hiru urteko ibilbidearen ostean, bildutako lan guztia paperera eraman zuten, bi liburutan banatuta: itzulpen lanak batetik, eta elkarrizketak, gogoetak, iruzkinak... bestetik. *31 eskutik* blogaren atzean ere EIZIE izan zen. 2012ko urrian 31 itzultzailearen konpromezuaz aurreko blogaren asmo berdinarekin jaio zen. Amaiera ofizialik eman ez dioten arren 2016koa da azken sarrera. Itzulpengintzako lau ikasle ohik euren literaturarekiko zaletasuna konpartitu nahi izan

zuten *Berbaratza* atariaren bitartez, eta noski, itzulpen lanak ere igo zituzten. 2015eko maiatzetik 2017ko uztaileira bitarte aritu ziren, kasu honetan ere, guztiz agur esan gabe.

Ezaguna da *armiarma.eus* egitasmoak euskal literaturaren inguruan egiten duen lana. 2003. urtetik izen horrekin ezaguna izan bada ere, Susa argitaletxeak kudeatutako *Literatur Aldizkarien Gordailua* eta beste webgune batzuetan izan zituzten lehen urratsak. Itzulpen lanak ere izan dira 2002. urteaz geroztik, Euskarari Ekarriak atalean, eta bertan aldian behin Armiarmarako propio egindako lanak eta baita dagoeneko paperean dauden argitalpenak (aldizkarietako poema bildumak, ipuinak, eleberri osoak...) digitalizatu, eta kaleratzen dituzte. 2010eko udazkenean abiarazi zuen Euskal Idazleen Elkarteak *hitzenuberan.eus* literatur atari digitala, non hainbat itzulpen aurkitu ahal izan ditugun, bertako kolaboratzaileek bidaliak edota «Amuak» literatur erreferentziei buruzko ataleko artikuluetatik jasotakoak.

Senezek, EIZIEren itzulpengintzari buruzko aldizkariak, 1984an ekindako bidean jarraitzen du. Azken hamaika urteetan 15 zenbaki berri kaleratu ditu, zeinetatik 3 bereziak izan diren, eta pentsatzekoa den moduan, itzulpen lanek badute beren espazioa bertan. Beste hainbeste zenbaki kaleratu ditu Euskal Idazleen Elkarteak kudeatzen duen *Hegats* aldizkariak, non tarteka itzulpenak aurki ditzakegun. Ez da makala euskal literaturari buruzko *Egan* aldizkariaren urteetako lana. Lopez Gaseniren azken azterketa hartatik 22 zenbaki kaleratu dituzte, eta euskarara ekarritako lanen bat edo beste ere topa dezakegu. Labayru fundazioaren *Idatz&Mintz* aldizkariak kaleratu izan du euskaratutako literatur itzulpenik.

Mugimendu handia antzeman dugu urte hauetan, eta literatur itzulpenenaren sisteman eraginik izan ote duen jakiteko, datutan kuantifikatu nahi izan dugu.

Beraz, lan honen helburu nagusia aurrekari dugun inbentario eta azterketa horrekin alderaketa egin eta lortutako datu esanguratsuenetan oinarrituta balizko joera berri horiek antzematea da.

2. MARKO TEORIKOA

Lan honen iturri teorikorako egokia iruditu zaigu itzulpen ikasketetara jotzea. Hala, beraz, kultura batean itzulpengintza aztergai indibidual gisara jo zuen lehen ikertzailearen ideiak ekarriko ditugu.

Itamar Even-Zoharrek 1970eko hamarkadan Polisistemen Teoria proposatu zuen. Honen arabera, kultur sistema bat beste azpisistema ugari osatzen dute; azpisistema horiek dinamikoak dira, elkarren artean elikatzen dira eta ez daude isolatuak (Even-Zohar, 1990). Literatura-sistemari erreparatuta, hortaz, sistema honen barruko sistema independentea da itzulpenarena, eta itzulpen sistemak kulturaren duen indarraren arabera posizio periferikoagoa edo zentralagoa izango du, posizio hori historiako momentu jakinetan faktore zehatz batzuek baldintzatu dezaketelarik. Tradizionalki ikasketa filologikoetatik at utzi izan da itzulpen literarioen azterketa, baina asko esan dezake kultur sistema baten inguruan. Izan ere, literatur kanona eta erreperitorioa osatzen laguntzen du; korrante, baliabide eta ikuspuntu berriekin elikatzen du sistema literarioa; itzulpenen bitartez, literatur sistema batean egon daitezkeen hutsuneak bete daitezke; eta baita hizkera literarioa hornitu eta aberastu ere.

Even-Zoharren ustez, posizio zentrala du itzulpen sistemak argitaratzen den guztiaren portzantajea handia denean. Horren arrazoiak hiru dira: literatura gaztea izatea, finkatze prozesuan dagoelako; literaturak indarririk ez izatea, aztergai den hizkuntzako literatura hizkuntza bat(zuen) menpe dagoelako; eta historiako momentu jakin batean egotea, gertakizun garrantzitsuak tarteko (gerrak, krisiak...).

Teoria honetan oinarrituta, itzulpenen sistema propioak euskal literaturaren sistemaren barruan ze posizio duen definitu ahal izango dugu.

3. AZTERLANAREN AURREKARIAK

Atal honetan, gure azterlanerako interesgarriak diren hainbat lan ekarri ditugu, aurrekari gisa, euskal literatura itzuliaren panorama nolakoa izan den jakiteko balioko digutenak.

Aurrekariak 2009ra arte

Joan Mari Torrealdai: 30 urte liburugintzan

Joan Mari Torrealdai 70eko hamarkadan ekin zion, azterketa soziologiko bat xede, euskal liburugintzaren panorama aztertzeari. Gerora, 1980eko hamarkadan ia-ia urtero liburugintzaren sistemak urtean izan duen bilakaera *Jakin* aldizkarian publikatzen hasi zen (urteren batean kale egin badu, hurrengo zenbakietan kaleratu izan du). Hainbat dira aztertzen dituen parametroak: nobedade-berrargitalpen bikotea; liburuen generoa (helduentzako literatura, zientifikoa, haur eta gazte literatura, erlijioa, aisia...) eta, noski, jatorrizko liburu eta itzulpenen arteko aldea.

30 urte liburugintzan liburua argitaratu zuen 2007an, 2005ra arteko azterketa guztiek biltzen zuten informazioarekin. Literaturak %16ko portzentajea hartu zuen azterketa hartan, 30 urteko ibilbidean. Lopez Gaseniren datuen arabera, literatura itzuliak %20 hartzen du literaturaren barruan.

Manu Lopez Gaseni: Euskal itzulpenen azterketa eta inbentarioa

Lehenago esan bezala, Gradu Amaierako Lan hau Lopez Gasenik 2009an egindako lanaren jarraipena dugu, hein handi batean. EIZIEk eskatu zion euskaratutako lanen inbentario horrek, ordura arteko itzulpenak sailkatzeaz gain, etorkizunera begirako helburuak izan zituen: batetik, euskarak behar zituen itzulgai berriak definitzea; eta bestetik, LU bildumak argitaratu zituen lanen azterketa egitea, proposamen berriak egitearekin batera.

Euskal literatura 1970eko hamarkadaren erdialdean egonkortzen hasi zen, Hegoaldean behintzat. Hori izan zen lanak bilduko zituen aztergaiak mugatzeko irizpide nagusia. Literatura lanak ez ezik, *Pentsamenduaren klasikoak* eta *Zientzia irakurle ororentzat* bildumetako lanak ere aztertu zituen, EIZIEk hala eskatuta.

Azterketa kuantitatiboak eman zituen datuak oso esanguratsuak izan ziren, gerora markatu beharreko helburuak hobeto definitzeko. Lopez Gasenik lortutako emaitzak guk lortutako emaitzekin batera emateari egokiago deritzogu; beraz, aurrerago ikusiko ditugu lortu zituen datu kuantitatiboak.

Lopez Gasenik bi joera nagusi nabarmendu zituen lanean: erakundeek bultzatutako itzulpenak eta argitaletxeek bultzatutako itzulpenak. Lehen taldeko lanek arlo jakin bateko obra kanonikoak euskaratzea zuten helburu, horren adibide dira Literatura Unibertsala, ZIO, *Gaur Egungo Euskal Poesia* bildumak eta *Antzerki* aldizkaria. Bigarren taldeko itzulpenek asmo erabat komertziala zuten. Eskubide librekoak ziren gehienak, nahiz eta eskubide pribatuak zituzten liburuek igoera nabarmena adierazten zuten. Talde honen barruan polizia-nobelak eta nobela beltzak eta idazle garaikideak ziren itzulienak. Poesiarik eta antzerkirik ia ez zen ekimen pribatuko argitalpenetan eta tarteka klasikoren bat aurki zitekeen.

Euskal literaturaren sistemara ekarritako lanak aztertuta beraz, aurrera begira ekarri beharreko itzulgai posibleak zerrendatu zituen. Kanonikotasuna izan zen irizpide nagusia, horregatik proposatu zituen tokian tokiko historia eta literaturaren historiara erreparatzea, Nobel sariak, eta H. Bloomen *The western canon*. Urtero ateratzen diren eta geroz eta

ohikoagoak diren «100 libururik onenen zerrenda» edo antzekoak kontuan hartzekoak zirela gehitu zuen. Azkenik, poesia eta antzerki generoen aldeko apustua egin zuen; XX. mendeko idazleen poesia, antzerki eta pentsamendu bildumak sortzeko proposamena egin zuen; eta gaztelania ez den beste hizkuntzetatik itzultzea gomendatu zuen, izan ere, gaztelera euskaldun askoren hizkuntza denez, estilo ariketa gisa ulertu beharko genuke jardun hau.

Iñigo Errasti

2009an Iñigo Errastik LU bildumaren inguruan galdetegia burutu zuen *Senez* aldizkariaren 37. zenbakirako. Bildumaren lehen 100 tituluak argitaratu ostean bildumak izan zuen harreraren inguruan galdetu zien literatur itzultzaile, idazle eta literatur kritikoei.

Oro har, itzulpenen maila altua eta obren euskaratzearen ahalegina goraiatu zuten galdetegiaren erantzuleek. Helburuei dagokienez, pozik azaldu ziren; izan ere, autore garrantzitsuenak eta euskarak zituen hutsuneak betetzea lortu zuela argudiatu zuten. Hala ere, lan handia egiteke zegoela gehitu zuten.

Hari horri eutsita, bildumak zituen hutsuneei buruzko galderaren aurrean kritiko azaldu zen bat edo beste. Gizon zuri europazentristaren perfiletik ezer gutxi aldendu zirela «salatu» zuen erantzuleetako batek, eta LU bildumak betetzen zuen kanonikotasuna zalantzan jarri zuen. Aurrerago ikusiko dugun moduan kanonikotasun horretatik aldendu, eta nolabait, joera berrietara gerturatzeko joango zen LU bildumaren bigarren eta hirugarren aroetan (2002-2010 eta 2012-2018, hurrenez hurren).

Aurrekariak 2009tik

Joan Mari Torrealdai: *Jakin* aldizkariko azterketak

Joan Mari Torrealdaik ez dio urteko liburugintzaren inguruko txostena egiteari utzi. Gaurdaino 2016ra bitartekoak kontsultatu ahal izan ditugu (2012ra arteko datuak *Jakin* aldizkariaren 198. zenbakian, eta 2016ra artekoak Interneten). Hauek izan dira lortutako emaitzak:

EUSKAL LIBURUGINTZA 2008-2016				
Urtea	Ekoizpen osoa	Literatura		Literatura itzulia
		Kop	%	%
2008	2.560	306	12	24,8
2009	2.182	382	16	15,9
2010	1.988	295	14,5	16,5
2011	2.117	302	13,5	23
2012	1.974	280	13,1	22,7
2013	1.650	254	13,8	25,7
2014	1.667	302	13,8	28,9
2015	1.755	294	12,1	27,8
2016	1.615	268	13	23,6
OSOTARA	17.508	2.683	15,3	23,2

1. Taula: Euskal liburugintza 2008-2016

Urteen poderioz eta gorabeherak gorabehera, liburugintzaren ekoizpena jaitsi egin da. Alabaina, helduentzako literatura %12-16 mantendu da, eta horregatik, literatur lan guztiak batuz gero, ehuneko batez bestekoaren gainetik dago (%15,3). Literatura itzulpenen titulu kopurua ere mantendu egin da, eta horregatik ez dira sobera jaitsi.

Itziar Murgiondo Agirre

Itziar Murgiondo Agirrek, 2018an aurkeztu zuen GrALean, 1990. eta 2017. urteen artean euskarara ekarritako narratiba lanen azterketa egin zuen generoaren ikuspegitik. Gerora, lan horretan oinarrituta *Zenbat emakume itzultzailek itzultzen dugu euskarara?* artikulua kaleratu zuen, EIZIEk hala eskatuta, 2019ko martxoaren 8ko mobilizazioen harira.

Lan hauetako datu esanguratsuenen arabera, 2001-2002 ikasturtetik 2017-2018 ikasturtera bitartean EHUko Itzulpengintza eta Interpretazioko graduan matrikulatutakoen %80tik gora emakumezkoak izan dira. Era berean, EIZIEko bazkideen gehiengoa, 2017ra arte gizonezkoak baziren, urte horretan balantza emakumeen alde irauli zen, emakumeek %54 eta gizonek %46 lortu zutelarik.

Datuok garrantzitsuak dira ulertu ahal izateko emakumeak instituzionalki itzulpengintzaren eremuan barneratu, eta gehiengoa diren arren, ekoizpen literarioan gizonak direla nagusi (%71), lan merkatua aldatu ez den seinale.

Ane García López

Ane García Lópezek poesia itzuliari buruzko azterketa bat kaleratu zuen 2016an, *Senex* aldizkariaren 48. zenbakian. Hasieran, jardun honek euskal literatur eta itzulpen sistemetan duen posizioa eta nolakotasuna definitu zituen eta hauek dira funtsean poesia

itzultzearen jardunaz bildu zituen ezaugarriak: bereziki gaztea den jarduna da, kontuan hartzen badugu 1980ko hamarkada arte ezer gutxi euskaratu zela. *Urria, eklektikoa eta ausazko* moduan definitu zuen, izan ere, gustu eta ideologiaren araberrako ekintza dugu honakoa, hau da, ia ekimen publikorik ez dagoen heinean, itzultzaileak berak hautatzen du zer itzuli, eta maiz, euskal literaturaren sisteman dauden ustezko hutsuneak betetzeko joera dago.

Bestalde, bere lanean azterketa kuantitatiboa egin zuen monografia eta monografiatik at zeuden poesia lan itzuliak alderatuz. Azterketa horretatik ondorioztatu ahal izan zuenez, monografiatan antologiak dira nagusi, bai autore anitzek osatutakoak eta baita autore baten poema bildumek osatuak. Monografietatik at dauden itzulpenetan ikusi zuen azken hamarkada arte aldizkarietan publikatzen zirela gehien bat, baina azken hamarkadan webguneak/blogak gailendu direla. Ondorioak, alabaina, antzerakoak dira edozein dela euskarria eta joera garbia da: itzultzaile –maiz idazle – gizonetakoek idazle kanoniko gizonetakoak itzultzen dituzte.

Bukatzeko ondorioetan gehitzen du mundu editorialetik at dauden euskarriek mesede egiten diotela bazterreko jardura honi, eta horri esker, gurera poeta «ezezagunak» ekartzeko espazio gehiago daudela.

Garazi Ugalde

Azkenik, Garazi Ugaldek bere Master Amaierako Lanean jorratu zuen gaia gure lanerako jakintza osagarri gisa egokia iruditu zaigu. *Euskararen eta beste hizkuntza gutxitu batzuen arteko literatura itzulia* (2015) izeneko lanean ikusi ahal izan dugun moduan, euskarak beste hizkuntza gutxituekin izan duen harremana ez da beste hizkuntza handiekin izan duen harremanaren adinakoa, nahiz eta gero eta sendoago dagoen.

Ugaldek esan bezala, euskarak hizkuntza *emaileagoa* baino *hartzailleagoa*ren jarrera dauka, hau da, gehiago dira hizkuntza txiki horietatik euskaratu direnak euskarak esportatu dituenak baino. Gertutasun geografikoa eta harreman sozio-kulturalak tarteko, galiziera eta katalana izan dira proportzio handiengan itzuli direnak. Hala, beraz, pentsa daiteke estatuko beste hizkuntza koofizialak eredu izan ditugula gure literatur sisteman.

4. METODOLOGIA

Manu Lopez Gaseniren lanetik abiatuta, orain hamar urte erabilitako metodologiaren antzekoa erabiliko dugu guk ere. Hala ere, denboraren poderioz sortu diren eta esanguratsuak izan daitezkeen aztergai eta parametro berriak aztertzeo aukera ez dugu alboratu.

Lehenik eta behin, esan berri dugun bezala, EIZIEk kudeatzen du Nor da Nor euskal itzulpenen eta itzultzaileen inguruko datu basea. Lan handia egin dute hau eguneratuta egon dadin eta euskaratik zein euskarara egindako itzulpen gehienak bederenbiltzeko. Horretarako, aldizka harremanetan jartzen dira *armiarma.eus*, Literaturaren Zubitegia Sarearekin; *Euskadiko Irakurketa Publikoaren Sarearekin*; eta Euskal Idazleen Elkarteko eta EIZIEko kideekin, autoreek eta itzultzaileek beste inork baino hobeto baitakite euren lanen inguruan. Horregatik diogu, eguneraketak aldizkakoak direnez, balitekeela gure datuak momentu honetakoekin guztiz bat ez etortzea. Eta egia da, bertako langileek onartuta, lan guztiak batzen ez dituen arren, ehuneko oso txikia osatzen dutela datu basearen barruan ez dauden lanek.

Halaber, aukera izan dut EIZIEn praktikaldia egiteko, eta honi esker, publiko orokorrak egiten ahal ez dituen bilaketak egiteko, zeinek informazioa modu xeheago batean antolatzen lagundu didaten.

Euskal Itzulpenen Inbentarioa eta Azterketa (1976-2008) lanak liburu formatuan argitaratu ziren itzulpenak besterik ez zituen aztertu, pentsatzekoa baita garai hartan Internetek eskaintzen zituen baliabideetan euskaratutako testu gutxi egongo zirela. Azken hamarkadan, ordea, asko dira soilik sarean aurkitu daitezkeen testuak. Gainera, aldizkari eta txatala² euskarriak ere biltzen ditu NdNek, beraz, halakoak ere aztertzea interes handikoa izan daitekeela uste dugu.

Hauxe da jarraitu dugun prozedura:

Hasteko, Nor da Norreko bilatzailean 2008 eta 2018ko tartea, euskara xede hizkuntza eta «Literatura» etiketa duten liburuak bilatu ditugu, eta emaitza guztiak *.txt* formatuko dokumentu batera esportatu; osotara 586 lan bildu ditugu 2019ko apirilaren 1ean egindako bilaketan. Excel programarekin irekitzerakoan informazio asko (100 bat

² Txatala, NdN datu basearen arduraduna den Bego Montoriorren hitzetan: Nagusiki itzulpena ez den liburu, lan eta abarretan itzulitako atal labur bat. Poema, aipu, lagin eta antzekoak izan ohi dira.

titulurena) desordenatuta azaltzen denez, banan-banan ordenatzen eta kontrastatzen joan gara, lehen orrazketara pasa aurretik. Orrazketarako, Manu Lopez Gasenik bere azterketarako erabili zituen irizpide berberak erabili ditugu, hau da, jarraian zerrendatzen ditugun ezaugarriak betetzen dituzten liburuak ezabatzea:

- Haur eta gazte literatura: Berez, oso anitza den generoa delako. Gainera, bere ezaugarriak kontuan hartuta zaila da sailkatzen, eta bere horretan bakarrik lantzeko aztergaia da.
- «Kanonikotasun» batetik aldentzen diren lanak:
 - Euskara ikasteko materiala: Euskaratzerakoan moldatuak, moztuak edota luzatuak izan direlako.
 - Egile anitzen lanak biltzen dituzten antologiak.
 - Egile jakinik gabeko lanak.
 - Berrargitalpenak: batez ere argitalpen kritiko gisara kaleratutakoak.

Hala ere, aurrerago ikusiko dugun moduan, guk egile askok egindako lan batzuk zein egile ezezaguna duten beste batzuk uztea erabaki dugu, salbuespen gisa, uste dugulako kanonikotasun hori betetzen dutela.

Hurrengo urratsa Bego Montoriorekin, NdN kudeatzearen arduradunarekin, biltzea izan da. Hainbat gomendio eman dizkigu lan prozedurarako eta zerrendatik ezabatzeko beste zenbait titulu. Izan ere, hainbat berrargitalpen —eta ez berredizio, bertako irizpideen arabera, tirada berri baten inprimaketa soila baita azken hau— kontuan hartu beharrekoak dira: argitaletxe desberdinetan izan badira, aldaketa handiak egon badira (euskara batura egokitzea, genero markak moldatzea,...) titulu diferentetzat jotzen dituzte; horren adibide argiena Urrezko Bibliotekako liburuak genituzke, aurretik LU bildumaren baitan argitaratuak. Garbiketa horiek eginda, liburuak osotara 509 izan dira.

Bilaketa eta prozedura berdina jarraitu dugu liburua ez diren bestelako euskarrietan publikatu diren itzulpen lanetarako (NdN datu basean «bestelakoak» izendatutako atalekoak, alegia). Emaitzak kasu honetan 517 izan dira. Hala ere, tituluak aztertzerakoan 11 Interneten edo bestelako euskarriren batean publikatutako monografia gisa identifikatu ditugu, eta hortaz, liburuen multzora pasa ditugu.

Beraz, azterketan, liburuen datuak lortzeko 520ko zifraren gainean lan egingo dugu, eta bestelakoetan 506ren gainean.

Aurrerago aipatuko ditugun parametroetako bakoitzerako orri bat zabaldu dugu Excelen. Zenbaitetan erraza izan da datuak zenbatzea (itzulpenen argitalpen data, adibidez) bilaketaren funtzioaren bitartez azkar lortzen baitira emaitzak. Egileen edota itzultzaileen parametroetan, berriz, zailagoa da; beraz, eskuz egitea erabaki dugu eta datuak zuzenak direla ziurtatu dugu betiere (bi, hiru eta lau aldiz zenbatuta). Itzultzailearen generoa NdNeko «tripetatik» kontsultatu dugu.

Arazorik izan badugu, dela daturen batek anbiguotasuna iradokitzen duelako, informazioa osatu gabe dagoelako, edo beste edozertarako Montoriorengana jo dugu.

Azkenik, datuak tauletan batu, Lopez Gaseniren emaitzekin alderatu eta ondorioak atera ditugu.

Aztergaiei dagokienean, Lopez Gasenik aztertu zituenak lau izan ziren: narratiba, saiakera, poesia eta antzerkia. Guk bostgarren bat gehitzea pentsatu dugu, komikiarena, genero honek gora egin duelako susmoa baitugu.

Intuzioak liburuak eta «bestelakoak» ataletan lor ditzakegun emaitzak elkarren artean konparatzera eramaten bagaitu ere, kontuan hartu behar dugu bestelakoetan testuak askotarikoak izan daitezkeela: ipuin solteak, poema solteak, poema sortak, eleberri edo saiakera lanetatik hartutako zatiak... Guk horiek zenbakitzeko NdNeko irizpidea jarraituko dugu. Horrek esan nahi du, monografiatan poesiari dagokion titulu 1 ez duela zertan «bestelakoak» ataleko poesiako titulu baten parekoa izan behar, ez behintzat luzeran.

Hala bada, liburuen/monografiaren kategoriarako Lopez Gasenik bere ikerketan landu zituen parametro berdinak aztertuko ditugu guk ere, orduko eta gaur egungo datuak konparatu ahal izateko. Honako hauek dira:

- Genero literarioa
- Jatorrizkoen hizkuntzak
- Jatorrizkoen herrialdeak
- Jatorrizkoen argitalpen data
- Jatorrizkoen egileak
- Itzulpenen argitalpen data
- Itzulpenen egileak
- Argitaletxeak

Parametro hauei, informazio esanguratsua eman diezaguketen beste parametro hauek gehitzea pentsatu dugu:

- Itzultzailearen generoa
- Elkarlanean egindako itzulpenak

Generoaren gaia azken urteetan pil-pilean dabilen gaia da, eta itzulpengintzaren arloan ere landu izan duenik egon da. Elkarlanean egindako itzulpenen parametroa aztertzea ikerketa egin ahala erabaki genuen, ikusi baikenuen badirela hainbat titulu bi esku baino gehiagotara eginak direnak.

«Bestelakoak» atalean biltzen diren lanetarako azterketa antzekoa egingo dugu. Antzekoa diogu, NdNek guk nahiko genukeen informazio guztia biltzen ez duelako; horregatik, jatorrizkoen herrialdearen parametroa kanpo utziko dugu, eta jatorrizko argitalpen datari dagokionean, adibidez, dauzkagun datuen araberrako emaitzak emango ditugu.

Bukatzeko, adierazi nahi dugu, emaitzak ematerako orduan eredu desberdinak jarraituko ditugula, izan ere, zenbait kasutan kategoria eta paradigma berriak txertatuko ditugunez, ezingo dugu informazioa Manu Lopez Gasenik lortu zituen emaitzekin alderatu, hau da, taula bakar batean batzuetan, eta besteetan, bi taula paralelo. Gainera, Lopez Gaseniren datuak «mugatuak» dira, hots, ez dugu kopuru absoluturik, eta parametro bakoitzean soilik emaitza altuenak lortu dituzten datuak ematen ditu. Horregatik, emaitzetako batzuetan lortutako datu guztiak emango ditugu, berebiziko garrantzia izan dezaketelakoan. Beste batzuetan berriz, informazioa mugatu egingo dugu eta taula «osoak» eranskinetan aurkitzen ahalko dituzue.

5. DATUEN ANALISIA

Metodologiaren atalean esan bezala, euskarrietako bakoitzean parametroak aztertzen hasi baino lehen, lortutako datuen osotasuna aurkeztuko dugu.

EUSKARRIA	
Generoa	Kopurua
Monografiak	520
Bestelakoak	506

2. Taula: Euskarrria

5.1 Monografiak

Monografia esaten diegu liburu osoaren formatua duten liburu guztiei. Bi aukera nagusi daude:

- Autore bakar bat: lan baten osotasuna mantendu duten liburuak, zein autore bakar baten hainbat lan biltzen dituzten antologiak.
- Autore bat baino gehiago: bi autorek baino gehiagok egindako lanetan, lanaren idazleek elkarrekin egindako lanak bakarrik zenbakitu ditugu, hau da, ez ditugu kontuan hartu antologiak, jatorrizko idazleek lanak bereizita publikatu baldin badituzte.

Genero literarioa

GENERO LITERARIOA			
Generoa	Kopurua	%	MLG %
Narratiba	294	56,53	68
Saiakera	120	23,07	17
Poesia	64	12,31	8
Komikia	22	4,23	-
Antzerkia	19	3,65	7
Besteak	1	0,19	

3. Taula: Genero literarioa

Narratibaren generoa da gehien itzultzen dena; are gehiago, itzulpenen erdia baino gehiago genero honetakoak dira. Saiakerak, hala ere, espazio garrantzitsua du itzulpenen sisteman. Poesia, eta neurri txikiagoetan, komikia eta antzerkia ere ekarri dira azken urteetan. «Besteak» atalean bildu dugun liburua Teresa Avilakoaren *Idazlan guztiak* antologia dugu. NdN «Literatura» etiketapean aurkitu dugu, izan ere, poemak, saiakera erlijiosoak, gutunak, eta askotariko testuak biltzen ditu.

Narratiba izan zen 2009ra arte ere gehien landu zen generoa, baina, orduko datuekin alderatuta, ia 9 puntuko beherakada izan du, saiakera, poesia eta komikiaren mesedetan (6 puntu, 4 puntu eta 4 puntu inguruko gorakada, hurrenez hurren). Antzerkia, gutxi itzultzen bazen, ematen du gero eta gutxiago ari dela itzultzen; (*Antzerki* aldizkariak ekoizteari utzi izanaren ondorioz beharbada), eta ekoizpena erdira murriztu da.

Jatorrizkoen hizkuntzak

JATORRIZKOEN HIZKUNTZAK			
Hizkuntza	Kopurua	%	MLG %
Ingelesa	183	35,19	32
Frantsesa	99	19,04	18
Gaztelania	81	15,57	16,7
Alemana	39	7,5	8,4
Italiera	25	4,80	5,3
Katalana	15	2,88	-
Errusiera	13	2,5	2,9
Galegoa	10	1,92	-
Portugesia	9	1,73	-
Besteak	46	8,84	13,7

4. Taula: Jatorrizkoen hizkuntzak

Besteak:

- Japoniera
- Arabiera
- Grekera
- Txekiera
- Daniera
- Errumaniera
- Hebreera
- Islandiera
- Kroaziera
- Latina
- Suediera
- Suomiera/
Finlandesa
- Txinera
- Aragoiera
- Bengalera
- Galesera
- Hungariera
- Lituania
- Poloniera
- Serbiera
- Serbokroaziera
- Azerbaijanera

Euskarak, azken hamaika urte hauetan, 31 hizkuntzako obrak jaso ditu, hala ere, horrek ez du esan nahi itzultzerako orduan SH kasu guztietan jatorrizko liburuarena izan denik, jakin baitakigu, NdNen adierazten denez, hainbat itzulpenetan zubi hizkuntzak erabili direla. Zalantzarik bazen, ingelesa da oraindik ere euskarara gehien inportatzen dugun SH, ekoizpenen herena baino gehiagorekin (%35); frantsesarekin (%19) eta gaztelaniarekin (15,6) batera, itzulpen-merkatuaren %70 baino gehiago hartzen dute. Nabaria da, bestalde, Espainiako beste hizkuntza koofizialekiko egon den atxikimendua, izan ere, katalanaren eta galegoaren artean %4,8 lortu dute. **Besteak** atalaren barruan, askotariko hizkuntzak barne-bildu ditugu, osotara 21. Horien artean, japoniera (%1,15)

sei eta arabiera bost libururekin (%0,96); grekera eta txekiera launa libururekin (%0,77); hebreera eta latina bina libururekin (%0,38); eta aragoiera, galesera edo bengaleraren tankerako hizkuntza «exotikoak» lan banarekin (%0,19).

Emitza guztiak ikusteko, ikus I. eranskineko 1. taula.

Orain hamar urteko azterketan jaso zituzten datuak gure analisisian lortutako emaitzen oso antzekoak izan ziren. Bost hizkuntza itzulienak berdina dira, eta ordena berean. Ingelesak arinki gora egin duen bitartean, frantsesak, gaztelaniak, alemanak, italierak eta errusierak beherakada arina izan dute. Latinaren kasuan, %3a izatetik %0,38a izatera pasada.

Jatorrizkoen herrialdeak

JATORRIZKOEN HERRIALDEAK			
HERRIALDEA	Kopurua	%	MLG %
Frantzia	82	15,77	12
AEB	70	13,46	13
Erresuma Batua ³	34	10,77	11
Espainia	30	5,77	5,6
Euskal Herria	29	5,34	7,3
Alemania	22	4,24	6,5
Italia	21	4,04	6
Katalunia	17	3,27	-
Errusia	8	1,54	-
Galizia	7	1,35	-
Argentina	7	1,35	-
Austria	7	1,35	-
Besteak	110	21,15	38,6
Markatu gabe	87	16,73	-

5. Taula: Jatorrizkoen herrialdeak

Besteak:

- Irlanda
- Txekia
- Japonia
- Kanada
- Portugal
- Brasil
- Errumania
- India
- Jugoslavia
- Maroko
- Afganistan
- Belgika
- Danimarka
- Finlandia
- Grezia
- Herbehereak
- Islandia
- Mexiko
- Suitza
- Txina
- Aljeria
- Egipto
- Ekuador
- Erromatar Inperioa
- Hegoafrika
- Hungaria
- Israel
- Kroazia
- Lituania
- Martinika
- Maurizio
- Paraguai
- Peru
- Polonia
- Prusia
- SESB
- Suedia
- Ukraina
- Uruguai
- Vietnam
- Zeelanda Berria

Frantzia da lan gehienak inportatzen dizkiguna. Atzetik, AEB, Erresuma Batua, Espainia, hemen bertako liburuak, Italia. Besteak atalean 42 herrialde bildu ditugu. Taulan 13 garrantzitsuenak daude jasota, eta argi ikusten da Europa dugula jomuga nagusia. Are gehiago, itzulpenen %60 baino gehiagok Europako herrialderen batean sortutako lanak dituzte abiapuntu. Ipar Ameriketako lanek (AEB eta Kanada) %14 osatzen dute;

³ Erresuma Batuaren barruan sartu ditugu, «Erresuma Batua», «Ingalaterra», «Eskozia» etiketak zituztenak. Manu Lopez Gaseniren azterketan Ingalaterra bezala etiketatuta zeudenekin alderatu ditugu.

Erdialdeko eta Hego Ameriketako herrialdeetako obrek %3; Asiatik ekarritako liburuek %2; Afrikako herrietako itzulpenak %1 dira; eta Ozeaniatik lan bakarra jaso dugu, Zeelanda Berriatik eta %0,19 osatzen du.

Atal honetako datuak interpretatzean, hala ere, kontuan hartu behar da jatorri ezagunik gabekoen kopurua oso altua dela, 87 zehazki (%16 baino gehiago) eta, horrenbestez, lortutako datuak orientagarriak baino ez dira.

Herrialde guztien zerrenda I. eranskineko 2. taulan dago ikusgai.

Dagoeneko, AEB ez da gure esportatzaile nagusia, ehunekotan mantendu —eta arinki igo— bada ere, Frantziaren gorakadak (ia 4 puntukoa), lehen postuan jarri du azkeneko hau. Ingalaterrak, Erresuma Batuak eta Eskoziak elkarrekin (%11 inguru), orain hamar urteko datuen antzekoak lortu dituzte. Euskal Herriko, Alemaniako eta Italiako lanak, ehunekotan, jaitsi egin dira, eta Espainiakoak, berriz, nolabait mantendu.

Jatorrizkoen argitalpen data

Jatorrizko liburuen argitalpen data multzokatzeko, hiru aldi nagusi izan ditugu irizpide: XX. mende aurrekoak, XX. mendeko liburuak eta XXI. mendekoak. Lehen tartean mendeka banatu ditugu; bigarrenean hamarkadaka (01 bukaera duten urteekin hasi eta 00 bukaera dutenekin bukatu, biak barne); eta azken mendean datu guztiak multzo berean eman ditugu.

JATORRIZKOEN ARGITALPEN DATA				
Garaia	Kopurua		%	
XX. mende aurrekoak	59	XII	1	11,35
		XIV	1	
		XV	2	
		XVI	6	
		XVII	6	
		XVIII	9	
		XIX	34	
XX. mendekoak	212	00	6	40,77
		10	17	
		20	22	
		30	20	
		40	19	
		50	16	
		60	15	
		70	17	
		80	36	
90	44			
XXI. mendekoak	180		34,32	
Datarik gabekoak	69		13,27	

6. Taula: Jatorrizkoen argitalpen data

Lehenengo blokean, XII. mendean hasi, eta XIX. mendera arteko itzulpenak aurki ditzakegu, eta zehazki, azken honetakoak dira blokeko liburuen erdia baino gehiago. XX. mende hasierako ezer gutxi itzuli da. 1910eko hamarkadatik 1970eko hamarkadara bitartean itzulitako obrek 15 eta 22 liburu arteko emaitza lortu dute. Gorakada nabaria da 80ko eta 90eko hamarkadetako itzulpenetan. Azkenik, XXI. mendean bereizi ditugun tartean, liburuen ia bi heren azken 11 urteetakoak dira. Orokorrean, literatura garaikidea itzuli da, eta are gehiago, herena baino gehiago (%35) XXI. mendeko literatura da.

Lopez Gaseniren datuak antolatzeko modua desberdina da, baina, hala ere, konparatzeko balio digu. Gure lehenengo blokeari dagokionean, berak bost estratotik bilduta %35 lortu zuen, guk, berriz, % 11 inguru, eta bietan XVIII. mendea da emaitza altuenak lortu dituen garaia. Orain hamar urte, itzulpen lanen %61 XX. mendekoak ziren, gaur egun 20 puntu gutxiago (%40) lortu baditu ere, bi azterketetan beste garaiekiko nabarmen gailentzen da.

Hemen ere, datarik gabeko liburuek espazio garrantzitsua hartzen dute, beraz, soilik ideia orokor bat egin dezakegu.

JATORRIZKOEN ARGITALPEN DATA MLG	
Garaia	%
XV. eta lehenagokoak	6,4
XVI	1,6
XVII	6
XVIII	4,5
XIX	16,5
XX	61
XXI	4

7. Taula: Jatorrizkoen argitalpen data, Manu Lopez Gaseniren azterketan

Jatorrizkoen egileak

JATORRIZKOEN EGILEAK		
Autorea	Kopurua	%
Toti Martínez de Lezea	12	3,05
William Shakespeare	6	1,52
Agatha Christie	5	1,27
Irène Némirovsky	5	1,27
Marcel Proust	5	1,27
Paul Auster	4	1,02
Elena Ferrante	4	1,02
Jean Echenoz	4	1,02
Dolores Redondo	4	1,02
Virginia Woolf	4	1,02

8. Taula: Jatorrizkoen egileak

Osoz 392 autore – gehi beste bi autore ezezagun – itzuli dira euskarara azken 11 urte hauetan. Pentsatzekoa den moduan, portzentajeak oso apalak dira, baina, ideia orokor bat egiteko balio dute: gehien itzuli diren 10 idazleen artean, 6 emakume eta 4 gizonzko ditugu; 5 bizirik daude, hots, idazle garaikideak dira, eta beste 5ak hilik daude; eta bi euskal herritar ditugu. Era berean, itzuliena Euskal Herrikoa eta emakumea izatea esanguratsua iruditu zaigu.

Shakespeare eta Christieren izenak dira Lopez Gaseniren azterketatik errepikatzen diren bi izenak, ehuneko antzekoetan ere. Emakumezkorik ez zen ia azterketa hartan. Datuei begi kolpe hutsean erreparatuta, pentsa genezake «salgarritasunak» kanonikotasuna ordezkatu duela. Baieztapen hori egiaztatzeko, ordea, Lopez Gasenik bildu zituen beste autoreen zerrenda osoa gurearekin alderatu beharko genuke., eta hori gure lan honen helburutik kanpo geratzen da.


Autoreen zerrenda luzeegia delakoan, idazleak zeintzuk izan diren ikusteko III. eranskina kontsultatzea proposatzen dugu, hau da, inbentarioa bera.

JATORRIZKOEN EGILEAK MLG	
Autorea	%
Miguel de Cervantes	3
William Shakespeare	1,5
Pfo Baroja	1,3
Oscar Wilde	1
Agatha Christie	0,9
Guy de Maupassant	0,9

9. Taula: Jatorrizkoen egileak, Manu

Lopez Gaseniren azterketan

Itzulpenen argitalpen data



1. Grafikoa: Argitalpenak urteka

Grafikoan ikusi ditzakegu azken hamaika urteetan urtero kaleratutako itzulpen kopurua. Eskuineko zutabe beltzak batez bestekoa adierazten du (47,27). Lehenengo urteetan (2008-2012), ugariagoak ziren itzulpenak. Krisiaren eraginez, beharbada, 2013an beherakada nabaria izan zen (31), eta harrezkero, azken 5 urteetan (2014-2018), urtean 40 itzulpenen bueltan ekoizten dira, bataz bestekoaren azpitik, betiere. Hala ere, NdN datu basea elikatzeke lan periodikoak burutzen dira, eta baliteke, oraindik ere 2018ko liburu denak identifikatuta ez izatea.

Itzulpenen egileak

Kasu honetan, publikatutako liburuak 520 izan diren arren, kontuan izan behar da zenbait itzulpen elkarlanean egin direla. Horrenbestez, itzultzaileei berdin zenbakitu dizkiegu banaka zein beste bat(zu)ekin egindako itzulpenak. Emaitza, eta ehunekoak egiteko zenbatekoa, hortaz, 576 da.

ITZULTZAILEAK		
Itzultzailea	Kopurua	%
Josu Zabaleta	16	2,78
Koro Navarro	15	2,64
Xabier Olarra	13	2,26
Gerardo Markuleta	12	2,08
Bego Montorio	11	1,91
Fernando Rey	11	1,91
Iñigo Roque	10	1,74
Juan Garzia	9	1,56
Julen Kaltzada	9	1,56
Itziar Diez de Ultzurrun	8	1,39
Identifikatu gabekoak	11	4,18

10. Taula: Itzultzaileak

Egileekin gertatu bezala, hemen ere kuota baxuak lortu ditugu. 263 itzultzaile identifikatu ditugu osotara aurreko inbentariotik gaur egunerako tartean aritu direnak. Gehien itzuli duten lehen hamarren artean hiru emakume baino ez ditugu, eta denak dira itzulpengintzan ibilbide luzekoak. Adin-tarteari dagokionean, Iñigo Roque da gazteena (1970eko hamarkadakoa) eta Julen Kaltzada zaharrena (1930eko hamarkadakoa). Haien jatorriari erreparatuta, bi baino ez dira nafarrak; hiru bizkaitar; eta gehiengoak gipuzkoarrak dira, lehen hamarren zerrendatik erdia (5). Arabarrik eta iparraldeko itzultzaileak ez dago lan gehien egin dutenen artean.

Olarra, Navarro, Garzia eta Rey dira «gailurrean» mantendu direnak, eta oro har, aldaketa handirik gabeko portzentajeak lortu dituzte. Mendiguren Bereziartuk eta Dorronsorok, gure datuen arabera, liburu bakarra itzuli dute guk aztergai dugun denbora tartean, Bigurik hiru eta Galarretak bat ere ez. Aipatzekoak dira, hauen orde, indarrez sartu direnak, besteak beste: Josu Zabaleta, Gerardo Markuleta eta Bego Montorio. Gainera, portzentajeak txikitu egin direnez, lanaren atomizazioa egon dela esan dezakegu.

Identifikatu gabeko 11 ale horiek, HABEk sinatutako itzulpen bat eta NdNen «s.n.» etiketarekin ageri diren 10 liburu osatzen dituzte. Lehen esan dugun bezala, Lopez Gaseniren irizpideen arabera gure azterketatik kanpo uztekoak izan beharko liriateke 10 liburu hauek, itzultzaile ezagunak ez dutenez kanonikotasun nahikoa ez dutelakoan. Baina, liburuon argitaletxea, autorea edota lana bera ezagunak diren heinean, uste dugu kanonikotasun hori betetzen dela, eta informazio falta hutsegite humanoren baten ondorio izango delakoan gaude. Hauek dira itzultzaile ezagunak ez, baina kanonikotasuna betetzen dutela uste dugun 11 liburuak:

ITZULTZAILEAK MLG	
Itzultzailea	%
Xabier Mendiguren Bereziartu	4
Xabier Olarra	3
Lukax Dorronsoro	2,9
Koro Navarro	2,1
Xabier Galarreta	2
Koldo Biguri	1,5
Juan Garzia	1,5
Fernando Rey	1,5

11. Taula: Itzultzaileak, Manu Lopez Gaseniren azterketan

- *Arima lapurrak*, Pablo Herranz, NetCom, (2012)
- *Kapitalaren aurka eta haratago*, John Holloway, Bagaudia (2006)
- *Erreforma edo iraultza*, Rosa Luxemburg, Federiko Engels Fundazioa (1899)
- *Maria Galanta, abadesa*, Toti Martínez de Lezea, Erein (2002)
- *Antsoren dorreak*, Tote Martínez de Lezea, Erein (2006)
- *Otalorea*, Toti Martínez de Lezea, Erein, (2008)
- *Pozoia koroari*, Toti Martínez de Lezea, Erein, (2011)
- *Balea*, Joy Ros, Maiatz (s.d)
- *Zer da zure burmuinari buruz dakizuna?*, J. Francisco Rubia, Gaiak (2006)
